

«Abangoardien eta herri kulturen arteko ezkontza berezia jazo da Euskal Herrian»

Bernardo Atxaga literaturaz aritu zen Gasteizen Sancho el Sabiok antolatu zikloan

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

ATXAGAREN hitzaldia herenegun gauean izan zen Vital Kutxa Fundazioaren aretoan, Sancho el Sabio Fundazioak antolatutako Eusko Ikasketen Seigarren Astearen Mintzaldiaren izenburua *Euskal Literatura* izan arren, sarrera luzea egin zuen edozein literaturak dituen hiru hornikuntza adierazteko: Grezia zaharra, Biblia eta herri literatura edo ahozko tradizioa.


Idazlearen ustez, «sekulakoa» izan da herri kontaerak Euskal Herriko kasuan izandako eta gaur egun ere daukan eragina. Behin Gabriel Arestik gramatika ikasteko gomendatu ziola eta Bilbon soil-soilik liburu bakar bat topatu ahal izan zuela kontatu zuen arestira arte idatzizko materiala «oso urria» zela nabarmentzeko. «Euskal Herrian askotan ahozko tradizioa jo zen besterik ez zegoen eta», deklaratu zuen.

Hortik, baina, euskal arimari buruzko diskurtsoa eraikitzea «absurdotzat» hartu zuen. Izan ere, *Obabakoak* obraren egilearen arabera, Euskal Herriko herri kultura gurea da hemengo delako, baina neurri handi batean ez da soilik euskaldunona, hamaika kasu baitaude mundu osoko kulturetan errepikatzen diren tradizioei buruzkoak. Zeinur (Bizkaia) entzundako istorio bat, esaterako, munduko beste puntan aditutakoaren berdin-berdina dela esan zuen idazleak.

Nolanahi ere, Atxagaren teoriari jarraiki, hemengo herri kulturaren ekarria «oso onuragarria» izan da geroko gertaera kultural bati begira, «oso ezkontza berezia gertatu baita herri kulturaren eta abangoardien artean». Honen «adibide bizidun» egokia Mikel Laboa musikaria izan daitekeela esan zuen; era berean, Eduardo Txillida edo Jorge Oteiza artista plastikoak «bi mutur ezberdin» lotzeko erduzko kasuak direla gaineratu zuen.

Herri tradizioetik modernitatara igarotzea Euskal Herrian baka-

Ahozko tradizioan jaiotako herri kultura eta abangoardiak uztartzeko era «oso berezia» da Euskal Herriko kasuan Bernardo Atxaga idazlearen irudiko. Eduardo Txillida, Jorge Oteiza edo Mikel Laboa aipatutako «ezkontzaren» adibide adierazgarriak direla uste du. Hala esan zuen idazleak herenegun gauean Gasteizen emandako hitzaldian



Bernardo Atxagaren iritziz, «garai batean ahozko tradizioa jotzea beste erremediorik ez da izan».

JOSEBA OLALDE

rik ez dela gertatu aitortu zuen, «baina hemen bidaia hori halako postdata batez egin da, nolabait balio erantsia baitzuen euskal tradizioaren eta modernitatearen arteko uztartzeak».

Gaur egun literaturan dihardutenek «lehengoek bezain argi ez» daukatela dio Atxagak, baina dena den gehienek barneraturik daramaten zerbait dela ulertzen dutela gehitu zuen.

Lehenengo «burgesia donostiar arrazista» • Bernardo Atxagak orokortasuna alboratu zuen berak herri literaturatik jasotako eraginaren gainean mintzatzeko. «Nik neuk ere izan dut harremana herri literaturarekin, jakina», esan zuen, baina gaztetan hainbatek herri tradizioetik «ihes egi-

teari» ekin ziotela gaineratu zuen duela hogeitortetik gorako Donostiako egoera gogora ekarriz. «Orduko burgesia donostiarra oso arrazista zen», deklaratu eta «euskaldun izatearen lotsa» aipatu zuen.

Hortaz, Atxagak eta bere garaikide askok «joan eta etorriko» bidaia egin zuten, herri tradizioarekin «bakea» eginez, «baina argi dago bueltan aldatuta zaudela nahitaez».

Atxagaren hitzaldia Sancho el Sabio Fundazioak egunotan bultzatutako ekimenetako bat da. Joan zen astean euskarazko idazleei buruzko erakusketa inauguratu zuen —aurrerantzean Donostian ikusiko dena—, liburu batzuk argitaratzeaz gainera. Iragan astelehen gauean,

berri, mintzaldi sorta hasi zen, Patxi Altuna Deustuko Unibertsitateko irakasleak Raimundo Olabideri buruz emandakoaren bidez. Herenegun, berri, Atxaga aritu zen, Jean Haritzelhar atzo eta gaur mahainguru interesgarrian parte hartuko dute Xabier Etxaniz, Gerardo Markuleta, Patxi Zubizarreta eta Manu Lopez Gaseni idazleek, denak ere *Gaurko Euskal Literatura* izenburuko ekitaldian. Gaueko 20:00etan hasiko da Vital Kutxa Fundazioak Postas kalean daukan aretoan. X

12 milioi pezetako murrizketa Barakaldo Antzokiaren aurrekontuetan

■ Barakaldoko udal antzokiaren aurrekontua 162 milioi pezetakoa izango da 1997an

Erredakzioa / Bilbo

ONARTUTA dago Barakaldoko udal antzokiaren aurrekontua 1997. urterako, PSE-EE eta EAJ alderdien aldeko botoekin. Barakaldo Antzokiko administrazio kontseiluko lehendakariak, Carlos Pera Barakaldoko alkateak, azaldu du Barakaldo Antzokiaren aurrekontu berria 162 milioi pezetakoa izango dela (6.480.000 libera). 1996ko aurrekontuarekin alderatuz, beraz, 12 milioi pezetako murrizketa izango du 1997ko aurrekontuak.

Egindako aurreikuspen ekonomikoaren arabera, Udalak 24 milioi pezeta gutxiagoko dirulaguntza emango dio 1997an Barakaldo Antzokiari, eta sarreren salmentaren bidez 32 milioi pezeta lortzea espero dute antzokiko arduradunek. Iragan denboraldian bost milioi pezeta gutxiago jaso dituzte, ikusle kopuruaren jaitsiera nabarmena izan delako.

1997an 71,7 milioi pezeta erabiliko dira kontratu artistikoak egiteko, 56,5 milioi antzokian diharduten langileen soldatak ordaintzeko, eta publikitate kontuetan beste 15 milioi pezeta erabiliko dira. Dietak, bidaiek eta oinarriko horniketa kontuan hartzen dituen diru kopurua, azkenik, sei milioi pezetakoa izango da.

Barakaldo Antzokiak guztira 78 ikuskizun eratu ditu, eta ikuskizun hauetan guztira 37.000 pertsona bildu dira. 1994tik 1997ra bitarte % 16ko jaitsiera izan du urteko aurrekontuan, 192 milioi pezetatik 162raino. X

Kepa Junkerak Bartzelonan joko du gaur

■ Euskal Folk Musikaren zikloko azken emanaldia izango da bizkaitarrarena

Erredakzioa / Donostia

KEPA JUNKERAK gaur gauean egingo duen kontzertuak emango lio amaiera Bartzelonan antolatutako Euskal Folk Musikaren zehenengo zikloari. Kepa Junkerak Ibon Koteron albokariarekin batera osatu duen *Leonen orroak* diskoa aurkeztuko du kontzertuan, gaur 22:30etatik aurrera, Sant Antoni zeharbidean dagoen CATen egoitzan.

Alboka da *Leonen orroak* diskoaren ardatza. Leon Bilbao goan izatea, alboka gaurkotzea

eta musika tresna moduan ezaugaraztea izan dira egileen asmoak. Natxo de Felipe, Anton Latxa, Bixente Martinez, Xabier Berasaluze *Leturia*, Maixa Lizarribar, Ixiar Oreja, Tomas San Miguel, Javier Paxariño eta beste hainbat laguntzaile izan dituzte grabaketa saioetan.

Azaroaren 14an eman zitzaion hasiera Euskal Musika Folkaren lehenengo zikloari, eta orain arte Tapia eta *Leturia*, Amaia Zubiria, Hiru Truku eta Alboka aritu dira zikloaren barruan. Oihartzun handiz. Izan ere, ikus-entzule


ugari bildu dira aipaturiko bakkarlari eta taldeen emanaldietan, eta gaur ere Kepa Junkeraren kontzertuan Bartzelonako jendearen erantzuna ona izatea espero dute antolatzaileek.

Euskal Herriko kulturako eta gizarteko gaiak katalanen artean zabaltzen saiatzen den *De Bat a Bat* aldizkariak eta CAT (Centre Artesa Tradicionarius) elkarteak antolatu dute Euskal Musika Folkaren lehenengo zikloa, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak dirulaguntza eman die. X



ANJEL LERTXUNDI

Tradizioa idazlearen kalekantoitik



HITZALDIA

Abenduak 19, arratsaldeko 19:30etan

Udal Liburutegia

(sarrera, San Jeronimo kaletik)

